

SENDATZA ARRIETA 'N

Sendatz eguna, ordu aundia,
Jaungoikoaren graziaz,
zuen inguru ibili da gaur
MAISUA abots zoliaz;
aspaldi ontan edertu zare
Jainkozko jakituriaz,
zuzentasuna eta egia
arturik gogo biziaz.

Mendi gaiñean daukat erria
eta neure basetxea,
goitik berantza begira nago
lurrak daukan onberea;
graziz beterik dago zugatza
ta edurrezko lorea,
izadi dana eskarrez dago
goratuten Egillea.

Loretan lore zare gazteak
Jaungoikozko irudia,
goiz eder ontan artu dozue
indar barrien grazia;
begira zuen izateari
goitik beraiño zuria,
Jaungoiko beraz jantzi dozue
zuen izate gutzia.

Zugatzak lerden, lorak edertzen
ikusten ditut mendian,
gora begira usain gozoaz
dana lurrintzen lurrian;
zuzenbideko
sinismenagaz batian,
zabaldu gogoz eta pozagaz
gazte maiteok bizian.

PAULIN

GURE PATXI

Nor da bidetik gora
onuntz datorrena?
Niregan ba diñot nik
da ba esaguna!

*

Ur urrera eltzean
gure Patxi dala
ikus dot argi argi.
Bai aldatu dala!

Bizar zikin moltsoa
kirru antzeko ule
lepotik bera doa
bai zikin ta luze!

Begi tamal baltzakaz
amorrus begira
lengo begi argiak
zelan galdu dira?

Jaunaren bidetatik
aldendua zara
lurrean dozu biotz
gutziz zorotua.

Ene Patxi laguna,
nun aldatu zara?
Nork biur zaituala,
Ori da patxada!

*

Lengo arpegi alaik
pozezkoa txera,
aldatuz artu dozu.
Zelako txar era!

*

Nork lilliratu zaitu,
lengo gazte ona?
Euskal gazte ziñean
garbi ta sakona.

Uste dozu orrela
mundu au ontzea?
Munduk eroan zaitu
era ori artzera.

Zorioneko zara
ortik zear beti?
Badozu biotzean
alaitasun ezti?

*

Zure gurasok negar,
euzkadi sotinka,
gure erri on ona
galduaz arinka.

Orain gazte gaztea
buru arin zara,
urteak ioaten dira
azkenez galtzera.

Biur zaiz bein batean
gurason etxera
biotza garbiturik
eldu zaiz bakera.

Ausnartu zure barrun
zelako izan dan
euskal gazte langille
garbia danetan
bear zaitu erriak
bere errigintzan
biurtuz egiz zintzo
Jainkoren eskutan.

GALLASTEGIK (j')